

Egilea:
2019ko otsaila



Txosten honetan, **2018ko ekitaldian 2020RAKO EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDERAKO PROGRAMAREN** esparruan hedatutako jarduketak daude jasota. 2018. Honako 3 jarduera-eremu hauetan banatuta daude lan horiek:

- 1. ZENBATERAINO DAUDEN TXERTATUTA INGURUMEN-IRIZPIDEAK EUSKAL SEKTORE PUBLIKOKO LIZITAZIOETAN**
- 2. 2020RAKO EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDERAKO PROGRAMAREN KUDEAKETA**
- 3. PROGRAMAKO ILDO ESTRATEGIKOAK HEDATZEA**

1. JARRAIPENA EGITEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN LIZITAZIOETAN INGURUMEN-IRIZPIDEAK TXERTATZEKO PROZESUARI

2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programak (2020rako EKPB Programa) helburu batzuk ezartzen ditu kontratazio publikoan ingurumen-irizpideak txertatzeari dagokionez, eta urtero neurtu behar da horien betetze-maila zenbaterainokoa den. Euskal Autonomia Erkidegoari eta haren sektore publikoei ez ezik –harena baita Programa–, Programako helburuak partekatzen eta bere egiten dituzten gainerako euskal administrazioei –Programara atxikitakoei– ere egingo zaie jarraipena.

Eusko Jaurlaritzarentzat eta haren sektore publikoarentzat, lhobek jada egiten zuen urteko jarraipena erosketa berdearen mailari dagokionez, hala baitzegoen aurreikusita Gobernu Kontseiluaren Akordioan –autonomia-erkidegoko administrazioak eta sektore publikoak egiten dituen kontratazioetan gizarte- eta ingurumen-irizpideak eta beste politika batzuk sartzeari buruzkoan– ezartzen den moduan. Hala ere, sistema horrek ahalegin nahiko handia eskatzen zien bai atxikitako erakundeei bai lhoberi.

2017an ez zen jarraipenik egin, antolaketa-egitura berriarekin aldaketa handiak egon baitziren Eusko Jaurlaritzaren organigraman eta kontratazio-arduradunen postuetan, eta horrek zaildu egin baitzuen aurreko ekitaldiko kontratazio-datuen bilketa egitea. Egoera hori, Europako kontratazio-araudiak kontratazio elektronikoa derrigorrean inplementatzeko ezartzen duen betebeharrarekin batera, aukera bikaina da Akordioaren eta Programaren jarraipena arinago eta errazago egiteko bide posibleei buruz hausnartzeko. Modu horretan, lhobe eta Eusko Jaurlaritzaren Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren arteko elkarlana ezartzen da, euskal kontratazio elektronikoko plataforma nola egokitu aztertzeke eta erosketa berdeko konpromisoen jarraipena modu efizientean egin ahal izateke.

Horrela, honako bi iturri hauek oinarri hartuta saiatuko da jarraipena egiten: 1) euskal kontratazio-plataforma elektronikotik (zehazki Revascon erregistrotik) automatikoki eskuratutako datuak, eta 2) 2020rako EKPB Programari atxikitako erakundeek helarazitako datuak.

2020rako EKPB Programari atxikitako administrazio gehienek 2018an formalizatu zuten ez atxikipen hori, eta urte horretarako egin zuten beren erosketa berdeko urteko plana, oraindik ez ditugu eskuratu 2018ko emaitzak. 2019ko lehen hiruhilekoan jakinaraziko dira emaitza horiek. Hori dela eta, oraindik ez dago atxikitako erakundeen daturik.

Revascon erregistroaren datuei dagokionez, 2017an aurretiazko aldaketa batzuk egin ziren: «klausula bereziak» erlaitza garatu zen, zeina erakunde lizitatzailleek bete behar baitute ingurumen-irizpideak sartzeko badituzte, beste klausula mota batzuen artean.

Ez da oraindik amaitu kontratazio berdeari jarraipena egiteko tresna egokitzeko prozesua; izan ere, 2018an lehenetsi zen beste aldaketa batzuk eta prozedura berri batzuk sartzeko, Sektore Publikoko

Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezarri duen lege-esparrura egokitzeko. Lege horrek aldaketa garrantzitsuak eragin ditu administrazio publiko guztietan.

Nolanahi ere, partzialki egokitu da Euskadiko kontratazio-plataforma (<http://www.contratacion.euskadi.eus>), eta, hori dela eta, zenbait datu partzial eskuratu daitezke. Hortaz, 2018ko datuen arabera, lizitazio kopuruaren % 21 eta bolumen ekonomikoaren % 28 izan da erosketaren berdearen maila; honako taula honetan ikus daitezke:

| | |
|---|------------------|
| Ingurumen-irizpideak txertatu dituzten erakundearen kopurua | 213 |
| Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen kopurua | 931 |
| Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen guztizko zenbatekoa | 356.167.419,73 € |

| | LIZITAZIOEN GUSTIZKO KOPURUA | INGURUMEN-IRIZPIDEAK dituzten lizitazioak | Guztizkoarekiko ehunekoa (%) |
|-------------------|---------------------------------|--|---------------------------------|
| Lizitazio kopurua | 2.178 | 457 | 21 |
| Zenbatekoa (€) | 1.067.634.984 | 301.483.298 | 28 |

ITURRIA: Euskadiko kontratazio-plataformako «Kontratzailearen profila» ataletik eskuratutako datuak (<http://www.contratacion.euskadi.eus>). 2018/01/01-2018/12/31 aldia.

Horiek emaitza partzialak dira, izan ere, Euskadiko kontratazio-plataformak ez du biltzen euskal sektore publiko guztia (erakunde publiko batzuk ez daude Euskadiko kontratazio-profilean, berezko kontratazio elektronikoko plataformak erabiltzen dituztelako). Horrez gain, zenbait erakunde publikok espediente-kudeatzaile propioak erabiltzen dituzte plataforman informazioa sartzeko, baina kudeatzaile horiek ez daude egokituta lizitazioak ingurumen-irizpideak dituen ala ez jakiteko («klausula bereziak» erlaintzen arabera), eta, horrenbestez, ingurumen-irizpideak dituzten lizitazio jakin batzuk ez dira ageri emaitzetan.

2019ko lehen hiruhilekoan egingo da atxikitako erakundearen jarraipena, eta, halaber, Revascon erregistroaren eta atxikitako erakundeek helarazitako datuen azterketa xehatua, erosketaren berdearen 2018ko egoeraren argazki hobe bat edukitzeko.

Horrez gain, plataformaren bidez datuak automatikoki biltzeko prozesua hobetzeko gomendio eta jarduketak identifikatuko dira –hala nola kudeatzaile indibidualak egokitzea, jarraipena egiteko erosketaren berdeko datuak sar ditzaten; plataforma erabiltzen duten erakunde guztiekin harremanetan jartzea, «klausula bereziak» erlaintza behar bezala bete dezaten; plataforma egokitzea, eremu horiek derrigorrezko bihurtzeko; eta abar–.



2. 2020RAKO EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDERAKO PROGRAMAREN KUDEAKETA

Programaren kudeaketari dagokionez, bi dira 2018an erdietsi diren jomuga nagusiak.

Lehena Programaren Trakzio Talde berria ezartzea izan da, 2017ko egitura-aldaketen ostean. Aldaketa horiek 2016ko amaierako hauteskunde autonomikoen ondorioz egin ziren, 2016ko irailean Programa onartu eta handik gutxira.

Taldea eratzeko, Programaren Trakzio Taldea abiarazteko bilera egin zen otsailaren 14an. Bilera Ingurumeneko, Ogasuneko eta Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordeek gidatu zuten, eta, bertan, arduradun politikoek hartu zuten parte. Arduradun politiko horiek Trakzio Taldean maila operatiboan parte hartuko duten pertsonak aukeratu zituzten *a posteriori*.

Urtean zehar, Programako Idazkaritza Teknikoa harremanetan egon zen guztiekin, eta, abenduan, bildu egin ziren Trakzio Taldearen funtzioak gogorarazteko eta Programa 2019an nola hedatu koordinatzeko.



Bigarren jomuga izan zen euskal sektore publikoko beste 12 erakunde atxiki zirela:

- | | |
|--|--|
| 1. Ihobe | 7. Bidasoa Oarsoko Industrialdea SA |
| 2. Arratiako Industrialdea SA | 8. Osakidetza - Barrualde-Galdakaoko ESI |
| 3. Bizkaia Sortaldeko Industrialdea SA | 9. Santa Marina ospitalea |
| 4. URA, Uraren Euskal Agentzia | 10. Eibarko Udala |
| 5. Itelazpi SA | 11. Urdulizko Industrialdea |
| 6. Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA (VISESA) | 12. Gipuzkoako Foru Aldundia |

2018an Programari atxikitako 31 erakunde daude

31 erakunde horietatik (hona hemen zerrenda: I. eranskina: 2018ko amaierara arte atxikitako erakundeen zerrenda) 30ek dute kontratazio-ahalmena. Erakunde horiek Idazkaritza Teknikora bidalitako informazioa oinarri hartuta, honako alderdi hauek azpimarratu dira.

Banaketa geografikoari dagokionez, atxikitako erakunde gehienak Gipuzkoan (% 40) daude; ondoren, Bizkaian (% 27); eta, azkenik, Araban (% 10). Gainerako % 23a Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoek eta beste erakunde batzuek osatzen dute, eta haien jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidego guztia da.




Eusko Jaurlaritzaren sailak 2020rako EKPB Programan automatikoki sartuta daudela kontuan izanda, honela daude banatuta, gutxi gorabehera, atxikitako erakundeak, motaren arabera:


- Eusko Jaurlaritzaren sozietateak dira heren bat (hala nola EITB, Visesa eta Ihobe);
- beste heren bat tokiko sozietate publikoak dira –orain arte, industrialdeak soilik–; eta
- tokiko erakundeek –udalak eta partzuergoak barne–, Aldundi batek (Gipuzkoako Foru Aldundia) eta beste mota bateko erakunde batek (Mutualia) osatzen dute azken herena.

Atxikitako erakunde guztien artean, % 77k egin ditu urteko EPBko planak eta/edo ingurumen-irizpideak txertatzeko lehenetsitako produktuen taldeak hautatu ditu 2018an.

Hala ere, atxikitakoen % 27k soilik egin du urteko EKPB Plana, bertan landu beharreko produktuen taldeak ez ezik, eguneroko prozeduretan EKPB txertatzeko beste neurri batzuk ere biltzen dituen.

2018an landu beharreko produktuen taldeak lehenesteko aurreikusitako kontratazioaren azterketa egin dute soilik gainerakoek.





Lehenetsitako produktuen taldeei dagokienez, zenbait faktoreren arabera aldatzen da hautaketa: zerbitzu jakin batzuk kontratatzea ala ez, aurreikusitako lizitazio-egutegiak, aurretiaz ingurumen-irizpideak zenbateraino dauden txertatuta, erosketaren edo kontratazioaren prozedura eta abar.


Zenbait kasutan, hala nola eraikuntzaren edo urbanizazioaren kasuan –nagusiki Industrialdeek lehenetsitakoak–, produktu talde horiek haien ingurumen-kudeaketarako sisteman txertatuta daudelako lehenesten da; nolana ere, urtean zehar proiektu mota horiek gauzatzen diren ala ez kontuan hartuta txertatuko dira ingurumen-irizpideak.

Gauza bera gertatzen da erakunde jakin batzuek lizitazio bidez eskuratzen ez dituzten produktuen kasuan (papera, ekipo informatikoak): kontratu txikien bidez erosten dira produktu horiek. Kasu horietan, produktuak eskuratzeko premia sortzen denean soilik txertatuko dira irizpideak.

Beste kasu batzuetan, erosketa kontratazio-zentralen bidez egiten denez, Zentralaren lizitazioaren mende dago ingurumen-irizpideak txertatzea, eta, neurri txikiagoan, egiten den erosketa eratorriaren mende; hain zuzen, horregatik ez dituzte lehenetsi erakunde batzuek.

Azkenik, kasu gehienetan (% 90), Programan lehenetsiak egon ez arren, erakundeek beren jarduerarako garrantzitsuak diren beste eremu batzuk sartu dituzte, erosketa horretan ingurumen-irizpideak txertatu ahal izateko.

Bestalde, EKPB apurka erosketetan elementu arrunta izatea lortzeko atxikitako erakundeek abiarazi nahi dituzten jarduerari dagokienez, alboko grafikoan zerrendatutako neurriak hartu dituzte euren Planak bidali dituzten 8 erakundeek.





2019aren hasieran egingo da lehen aldiz EKPBko urteko Planen gauzatze-mailaren jarraipena, eta honako hauek kuantifikatu ahalko dira:

- Lehenetsitako eremu guztietako erosketa berdearen bolumena, eta zer mailatan bete den 2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programan ezarritako lehen helburua (kontratazioen % 50etan ingurumen-irizpideak txertatzea, Programan lehenetsitako lehen 10 produktu taldeei dagokienez).
- Atxikitako erakundeetan EKPB barneratzeko ekintza paraleloen gauzatze-maila.

Aurrez, bilera bat egingo da atxikitako erakundeekin, atxikita eman duten lehen urtea ebaluatzeko, eta ezarritako helburuak lortzeko laguntza-ekintzak identifikatu eta lehenesteko, 2019an emaitzak areagotze aldera.


3. PROGRAMAKO ILDO ESTRATEGIKOAK HEDATZEA

2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeko Programa 5 ILDO ESTRATEGIKOREN eta 19 jarduketa zehatzen bidez hedatzen da. Hauek dira ildo estrategikoak:

1. IE: Inplementaziorako edukia eta tresnak
2. IE: Kontratazio-prozeduretan integratzea
3. IE: Prestakuntza eta gaikuntza
4. IE: Merkatuarekin koordinatzea
5. IE: Komunikazioa, dibulgazioa eta sareko lana

Jarraian, 2018an gauzatutako Programako jarduketak daude jasota, bai eta haietako bakoitzaren betetze-maila ere.

II. eranskinean, 2018ko ekintza guztiak daude laburbilduta, eta, III. eranskinean, berriz, 2016an plana onartu zenetik 2018ra egindako jarduketa guztiak.



1. ILDO ESTRATEGIKOA: INPLEMENTAZIORAKO EDUKIA ETA TRESNAK

1. JARDUKETA: Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Gidaliburua eguneratzea eta osatzea

- 1. **EKINTZA:** 7 lehenetsitako produktu/zerbitzuen kategoriatako irizpideak eguneratzea

2018rako Programan, 7 lehenetsitako produktu/zerbitzuen kategoriatako erosketa berdeko irizpideak berrikusi eta eguneratu dira: **Ordenagailuak, Inprimatzeko ekipamenduak, Eraikinen garbiketa, Saltzeko makinaren zerbitzua, Tartekako cateringeko zerbitzua, Jangela-zerbitzua eta Lorezaintza**. Horrek honako hauek biltzen ditu: ingurumen-irizpide zabalak hiru eskaera-mailatan, maila bakoitzeko hornitzaileentzako *checklista*, laburpen-fitxa, irizpide sinplifikatuak eta zuzeneko erosketa egiteko irizpideak.

Berrikuspena itzulitakoan, Ihoberen webguneko (<https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>) erosketa eta kontratazio berderako irizpideen apartatuan eguneratuko dira dokumentuak, non badauden jada irizpideak Programako lehenetsitako kategoria guztietarako.



1. jarduketa: Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua eguneratzea eta osatzea

Jarraipen-adierazlea:

Programan lehenetsitako produktu eta zerbitzuen taldeen ehunekoa (%), irizpide berrikusi eta/edo garatuekin

% 100, 2018ko epemugarekin

% 100, 2020ko epemugarekin

2. JARDUKETA: Programan lehenesten diren produktu/zerbitzuetarako ereduzko pleguen proposamenak egitea

- 1. **EKINTZA:** Ereduzko plegu izan daitezkeenak identifikatzea

2018an, beste administrazio batzuentzat eredugarriak izan daitezkeen administrazio publikoetako zenbait plegu identifikatu eta aztertu dira (Ihobek jasotako ingurumen-irizpideak txertatzeko eskaeretan edo zuzenean administrazioek helarazitako informazioan oinarrituta). Lizitazioaren emaitzen zain gaude, ereduzko plegua hautatzeko.

| 2. jarduketa: Ereduzko pleguen proposamenak egitea | |
|--|--|
| Jarraipen-adierazlea: | Programan lehenetsita dauden eta eredu-orria daukaten taldeen ehunekoa (%) |
| | % 25, 2020ko epemugarekiko |

3. JARDUKETA: Esparru berritzaileetan ekintza pilotuak egitea

- 1. **EKINTZA:** Ekonomia zirkularrerako Erosketa Publikoari buruzko argitalpena

Ihoberen webgunean ideien koaderno hau argitaratu da: «**KONTRATAZIO ZIRKULARRA. EKONOMIA ZIRKULARREN SUSTAPENA EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN BITARTEZ**».



- 2. **EKINTZA:** Erosketa publikoaren ekarpena bistaratzea

Honako hauek egiteko lanari ekin zaio: klima-aldaketaren aurka borrokatzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko erosketa berdearen irizpideen egungo egoera aztertzea; kontratazio publikoak euskal politikaren bi lehentasun horiei egiten dien ekarpena bistaratzea; eta 2019-2020rako jarduketak lehenestea.

- 3. **EKINTZA:** «Bizi-zikloaren kostuak kontratazio publikoan txertatzeko kontuan izan beharreko alderdiak» jardunaldia (2018ko ekainak 20).

3. ekintza prestatzeko lan gisa, bizi-zikloak kontratazio publikoan eragiten dituen kostuei buruzko jardunaldi bat egin da. Jardunaldiaren helburua zen bizi-zikloen kostuetan sakontzea; kontratazio publikoan nola aplikatu daitekeen azaltzea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 9/2017 Lege berriaren esparruan; ingurumenaren ikuspegitik alderdi garrantzitsuak nabarmentzea; eta planifikazio-tresna hori gehiago erabiltzeko hurrengo urratsak identifikatzea.



- **4. EKINTZA:** Erosketa publikoan bizi-zikloak dituen kostuei buruzko lantalde pilotua

Kontratatzeko ikuspegi berriak aplikatzen esperientzia irabaztea helburu, talde pilotu bat sortu da (horretan interesa duten administrazio publiko guztiei zabalik), ordenagailuak erosteko eta kontratatze orduan bizi-zikloaren kostuak erabil daitezzen.

Talde pilotuak ordenagailuak eta monitoreak erostea du ardatz, Europako Batzordea bizi-zikloaren kostuak kalkulatzeko tresnak garatzen ari delako zenbait produktu-talderi dagokionez, eta horietatik lehena ordenagailu eta monitoreena da. Hori horrela, Europako Batzordeak eginiko tresna hori erabili ahal izango du taldeak.

| 3. jarduketa: Esparru berritzaileetan ekintza pilotuak egitea | |
|---|--|
| Jarraipen-adierazlea: | Egindako eta dokumentatutako ekintza pilotuen kopurua (urtekoak eta metatua) |
| | 2018: Bizi-zikloaren kostuei buruzko talde pilotu bat (1) ezarri da |
| | METAGARRIA: 7 jarduketa egin dira, baina guztiak ez dira hertsiki proiektu pilotuak |

4. JARDUKETA: *Laguntza teknikoa ematea*

- **1. EKINTZA:** 152 kasutan txertatu dira ingurumen-irizpideak

152 laguntza-jarduketa egin zaizkio euskal administrazioari: 134 eskaera, pleguetan ingurumen-irizpideak txertatzeko, eta 18 kontsulta.

Guztira, sektore publikoko 39 erakundek eta 2 enpresa pribatuk egin dituzte laguntza-eskaera horiek. Jasotako kontsulta guztiak kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzako sailek 27 egin dituzte, Eusko Jaurlaritzaren erakunde eta sozietateek 28, foru-aldundiek 12, tokiko erakundeek 75, beste erakunde batzuek 4, eta enpresa pribatuek 2.

| 4. jarduketa: Laguntza teknikoa ematea | |
|--|---|
| Jarraipen-adierazlea: | Jasotako eskaeren kopurua eta erantzunen ehunekoa (%) |
| | 2018: 134 ingurumen-irizpideak txertatzeko eskaera 18 kontsulta GUZTIRA: 152 eskaera jaso dira, eta % 100 erantzun dira |
| | METAGARRIA: 256 laguntza-eskaera jaso dira (59, 2016an + 45, 2017an + 152, 2018an) eta % 100 erantzun dira |



5. JARDUKETA: *Garatutako produktu eta zerbitzuetarako irizpideak zuzeneko erosketaren ikuspegira egokitzea*

Amaitutako jarduketa; izan ere, garrantzitsua zen zuzeneko erosketaren fitxa edukitzea produktu edo zerbitzuen kategoria batzuentzat, eta jada badute fitxa hori, zeina erregularitasunez eguneratzen baita 1. jarduketaren barnean.

| 5. jarduketa: Garatutako produktu eta zerbitzuetarako irizpideak zuzeneko erosketaren ikuspegira egokitzea | |
|--|---|
| Jarraipen-adierazlea: | Zuzeneko erosketak eta/edo erosketak pribaturako fitxak egin zaizkien eta gidaliburuan dauden taldeen ehunekoak (%) |
| | % 100 (lehenetsitako 20 produktuetatik 13) |
| | * jada egin diren zuzeneko erosketako 13 fitxekin, jorratuzat jotzen dira zuzeneko erosketako fitxak eduki ditzaketen kategorien % 100. |

2. ILDO ESTRATEGIKOA: KONTRATAZIO-PROZEDURETAN INTEGRATZEA

6. JARDUKETA: Dauden kontratazio-ereduak eta -tresnak berrikustea

- **1. EKINTZA:** 2/2018 Gomendioa, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearena

Ekainean, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde guztiei gomendio bat bidali zien kontratazio publikoan ingurumen-klausulak txertatzearekin lotua.

- **2. EKINTZA:** Kontratazio-tresnak egokitzea, erosketa berdeari jarraipen hobea egiteko

Kontratazio-tresnak –Revascon, adibidez– egokitzeko lan egiten jarraitu zen, euskal administrazioaren erosketa berdearen mailaren jarraipena errazteko. Nolanahi ere, 2018an ezin izan dira aurrerapauso gehiegi egin; izan ere, kontratazio-lege berri bat onartu zen 2017ko amaiera aldera, eta horrek aldaketa ugari ekarri ditu kontratazio-prozeduretan eta lotutako tresnetan.

- **3. EKINTZA:** Eraikuntzaren sektorean, erosketa eta kontratazio publiko berdearen irizpideei jarraipena egiteko eta haiek kontrolatzeko tresna

Erakundeen arteko Lankidetzako Mahaiak eskatuta, Eraikuntzako EKPBko aplikazio bat garatu da, eraikuntzaren eremuko lizitazioetan txertatzen diren ingurumen-irizpideak ziurtatu eta kontrolatzeko.

6. jarduketa: Dauden kontratazio-ereduak eta -tresnak berrikustea

| | |
|------------------------------|---|
| Jarraipen-adierazlea: | Ekintza egin duten administrazio parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa (%). |
| | GUZTIRA: 3 ekintza egin dira |
| | 2019. urtearen hasieran, programara atxikitako erakundeen jarraipena egingo da lehen aldiz; hori dela eta, jarduketa honi buruzko adierazleak eskuratzea espero da. |

7. JARDUKETA: Erosketa eta kontratazio publiko berdearen prozesuak birdefinitzea

- Ez da eragiketa zehatzik gauzatu.

| 7. jarduketa: Erosketa eta kontratazio publiko berdearen prozesuak birdefinitzea | |
|--|--|
| Jarraipen-adierazlea: | Erosketa eta kontratazio publiko berderako prozedurak dituzten administrazio parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa (%) |
| | - 2019. urtearen hasieran, programara atxikitako erakundeen jarraipena egingo da lehen aldiz; hori dela eta, jarduketa honi buruzko adierazleak eskuratzea espero da. |

8. JARDUKETA: Zentralizatutako erosketa publiko berdea sustatzea

- **1. EKINTZA:** Erosketa-zentralen lizitazioetan ingurumen-irizpideak txertatzea

Ihobek laguntza eman du, eskariaren arabera (4. jarduketaren barnean), 2018an erosketa-zentralek abiatutako zenbait lizitaziotan ingurumen-irizpideak txertatzean. Horrez gain, zentral gehienek ingurumen-irizpideak sartzen dituzte euren lizitazioetan.

| 8. jarduketa: Zentralizatutako erosketa publiko berdea sustatzea | |
|--|--|
| Jarraipen-adierazlea: | Egindako baterako erosketen sustapen-ekintzen kopurua. |
| | Eskariaren arabera, martxan dauden Zentralei babesa eman zaie haietatik eratorritzen diren lizitazioei ingurumen-irizpideak txertatzeko. |
| | Erosketa zentralizatuen eta/edo ezarritako erosketa-zentralen jarduketak. |
| | - |

3. ILDO ESTRATEGIKOA: PRESTAKUNTZA, GAIKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA

9. JARDUKETA: *Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan integratzea*

- **1. EKINTZA:** 15 jardunaldi tekniko egitea/haietan parte hartzea

Urtean zehar honako prestakuntza-jardunaldi hauek egin dira:

- Lanbide-heziketako zentroi zuzendutako erosketa eta kontratazio berdeari buruzko jardunaldia (2018/03/20)
- Eskualde Erakundeen lantaldea: Erosketa eta kontratazio publiko berdea-Sektore publikoko kontratuen 9/2017 Lege berria (2018/03/23)
- «EROSKETA PUBLIKO BERDEA» lizitazioetan ingurumen-irizpideak txertatzeari buruzko jardunaldia, Bilboko Udalarentzat (2018/04/11)
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratazio-prozeduretako klausula sozialei, ingurumen-klausulei eta beste politika publiko batzuen gaineko klausulei buruzko jardunaldia (2018/10/17)
- Bizi-zikloaren kostuak kontratazio publikoan txertatzeko kontuan izan beharreko alderdiak (2018/06/20)
- Kontratazio publikoan ingurumen irizpideak txertatzea, IVAPekin lankidetzan (2018/10/25)
- Kontratazio publikoetan ingurumen-irizpideak txertatzeari buruzko bi tailer. HORNIKUNTZA eta ZERBITZUAK (Araba), Eusko Jaurlaritzako Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarekin lankidetzan (2018/06/13)
- Kontratazio publikoetan ingurumen-irizpideak txertatzeari buruzko bi tailer. HORNIKUNTZA eta ZERBITZUAK (Bizkaia), Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan (2018/06/14)
- Kontratazio publikoetan ingurumen-irizpideak txertatzeari buruzko bi tailer. HORNIKUNTZA eta ZERBITZUAK (Gipuzkoa), Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan (2018/06/15)
- Kontratazio publikoetan ingurumen-irizpideak txertatzeari buruzko bi tailer – HORNIKUNTZA eta ZERBITZUAK, EJKo Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarekin lankidetzan (2018/11/06)
- Kontratazio publikoetan ingurumen-irizpideak txertatzeari buruzko tailerra – OBRA ZIBILA, EJKo Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarekin lankidetzan (2018/11/07)

9. jarduketa: Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan integratzea

| | |
|------------------------------|--|
| Jarraipen-adierazlea: | Urte bakoitzeko eta guztira eskaintako prestakuntza-ikastaroen kopurua |
| | 15 prestakuntza-ikastaro eskaini dira (8, 2016an + 6, 2017an + 15, 2018an = 29 guztira) |
| | Prestakuntza-ikastaroetako parte-hartzaile kopurua |
| | 372¹ pertsona aurten (232, 2016an + 252, 2017an + 372, 2018an = 856 guztira) |
| | Jasotako prestakuntza positiboki baloratzen duten parte-hartzaileen ehunekoa (%) |
| | Eskura dauzkagun datuen arabera, parte hartzaileen % 100ek balorazio positiboa eman diote jardunaldiari <i>(Jardunaldiari balorazio positiboa eman zaiola ulertzen da 6,67tik gorako puntuazioa, jardunaldiaren asebetetze-maila globalarekin alderatuta)</i> |

10. JARDUKETA: Autoikaskuntzarako prestakuntza-moduluak egitea

- **1. EKINTZA:** Erosketa eta kontratazio berdeko autoprestakuntzarako material espezifikoa egitea

8 autoprestakuntzako modulu, 4 ariketa praktiko eta baterako sarrera-dokumentu bat amaitu dira 2018an, administrazioko langileek erosketa eta kontratazio publiko berdeko oinarrizko ezagutzak eskuratu ditzaten, modu autonomoan aplikatzeko. Prestakuntza-jardunaldiaren esparruan egin diren eta lhoberen webgunean eskuragarri dauden materialak osatzen dituzte moduluak.



10. jarduketa: Autoikaskuntzarako prestakuntza-moduluak egitea

| | |
|------------------------------|--|
| Jarraipen-adierazlea: | Garatutako proiektuen kopurua |
| | 8 modulu egin dira autoikaskuntzarako |
| | Moduluekin ikasten ari diren parte-hartzaileen kopurua |
| | Oraingoz, ez da aurreikusten prestakuntza-ikastarorik antolatzea, materialak autoikaskuntzarako baitira. Hala ere, 2019an Programari atxikitako erakunde guztiei entregatuko zaizkie, eta haien erabilpenaren jarraipena erakundeekin egingo da zuzenean. Programari atxikitako erakundeei helarazi zaizkie moduluak, erabili eta erakunde barnean zabaldu ditzaten (adibidez, erakundearen intranetaren bidez). |

¹ Kopuru horretan, apartatu honetan adierazitako prestakuntzako jardunaldi eta tailerretako parte-hartzaileez gain, «Ingurumenarekiko arduratsua den Euskadiko sektore publikoko kontratazioaren irismena. Aukerak» (11. jarduketa) jardunaldian parte hartu zuten 66 pertsona sartu dira.

11. JARDUKETA: Aldizkako sentsibilizazio-ekintzak egitea

- 1. **EKINTZA:** 7 laburpen-fitxa eguneratzea

Erosketako ingurumen-irizpideak dituzten produktu taldeek –Ihoberen webgunean argitaratu direnak– laburpen-fitxak dituzte, eta irizpideekin batera eguneratzen dira (1. jarduketa).

- 2. **EKINTZA:** Erosketa berdea balioesteko eta administrazio konprometituenak aintzatesteko jardunaldiak antolatzea.

Otsailean, «Ingurumenarekiko arduratsua den Euskadiko sektore publikoko kontratazioaren irismena. Aukerak» jardunaldia egin zen. Jardunaldi horretan, Euskadiko Administrazio Publikoak kontratazioan ingurumen-klausulak txertatzeko apustua aurkeztu zen, eta diplomak entregatu zitzaizkien 2020rako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programari atxikitako erakundeei. Nazio Batuetako Erosketa eta Kontratazio Jasangarriko arduradunak hartu zuen parte jardunaldian.



- 3. **EKINTZA:** Erosketa eta kontratazio publiko berdearen aurrean lehiakor izateko ingurumen-eskaintza sustatzeko elkarrizketa

Ihoberen erosketa eta kontratazio publiko berdeko arduradun Gorane Ibarri egindako elkarrizketa argitaratu du Ihebek, honako izenburu honekin: «Beren produktuetan ingurumen-irizpideak txertatzen ez dituzten enpresen lehiakortasuna txikiagoa izango da».

| 11. jarduketa: Balioesteko eta sentsibilizatzeko ekintzak egitea | |
|--|--|
| Jarraipen-adierazlea: | Egindako sentsibilizazio-jarduketaren kopurua |
| | 3 jarduketa egin dira |
| | Fitxa laburrak (laburpen-fitxak) dauzkaten Eskuliburuko taldeen kopurua eta ehunekoa (%) |
| | Eskuliburuko taldeen % 100 |

4. ILDO ESTRATEGIKOA: MERKATUAREKIN KOORDINATZEA

12. JARDUKETA: *Irizpide teknikoak zehazteko prozesuan ekoizleak eta hornitzaileak inplikatzeko*

- Ez da jarduketarik egin 2018an.

13. JARDUKETA: *Hornitzaile eta erosleen arteko topaketak antolatzea*

- Ez da jarduketarik egin 2018an.

14. JARDUKETA: *Erosketa berritzaileko prozesuetan parte-hartzea erraztea*

- Ez da jarduketarik egin 2018an.

15. JARDUKETA: *Hornitzaileentzako prestakuntza-ikastaroak egitea*

- **1. EKINTZA:** Enpresa-sektorearentzako prestakuntza-jardunaldi bat (1) egitea

Azaroan, «Enpresa pribatuaren zeregina erosketa eta kontratazio berdean» jardunaldia egin zen. Jardunaldi horren xedea zen enpresa pribatuen zeregina zein den zehaztea, sektore publikoko kontratuen lege berriaren esparruan lehiaketa publikoetako lizitatzailerik diren aldetik –lege horrek ingurumen-ikuspegi batetik ahalbidetzen duena kontuan hartuta–, erosle diren aldetik, eta haien balio-kateak duen trakzio-potentziala kontuan hartuta.

| 15. jarduketa: Hornitzaileentzako prestakuntza-ikastaroak egitea | |
|--|---|
| Jarraipen-adierazlea: | Antolatutako ikastaroen kopurua |
| | 1 jardunaldi |
| | Parte hartu duten enpresa hornitzaileen kopurua |
| | 23 parte-hartzaile |

5. ILDO ESTRATEGIKOA: KOMUNIKAZIOA, DIBULGAZIOA ETA SAREKO LANA

16. JARDUKETA: *Hedapen-ekintzak maiz egitea*

- **1. EKINTZA:** Ihoberen webgunea berritzea

2018an Ihoberen webgunea berritu zen, eta, orain, egitura berriarekin, errazagoa da erosketa publiko berdearen arloko informazioa aurkitzea: <https://www.ihobe.eus/erosketa-publiko-berdea>.

- **2. EKINTZA:** 6 albiste argitaratzea

2018an erosketa publiko berdeari buruzko 6 albiste argitaratu ziren www.ihobe.eus webgunean.

- **3. EKINTZA:** Erosketa publiko berdeko joerei buruzko 4 txosten argitaratzea

2018an erosketa publiko berdeari buruzko 4 txosten argitaratu dira www.ihobe.eus webgunean.

- **4. EKINTZA:** Erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko bideoa argitaratzea

2018an, dibulgazio-bideo bat argitaratu da, eta hauek jorratzen ditu: erosketa eta kontratazio publiko berdea, Programari atxikitzea eta Programa inplementatzeko eskuragarri dauden tresnak (bideoa euskaraz <https://www.youtube.com/watch?v=Zt3Rtscmp2w> ikus daiteke edo gaztelaniaz https://www.youtube.com/watch?v=tjldPi_JM2U).

| 16. jarduketa: Hedapen-ekintzak maiz egitea | |
|---|---------------------------------------|
| Jarraipen-adierazlea: | Egindako hedapen-jarduketaren kopurua |
| | 10 jarduketa egin dira |

17. JARDUKETA: *Jardunbide egokien berri ematea*

- **1. EKINTZA:** 3 jardunbide egoki/bikaintasun-kasu egitea

2018an honako jardunbide egoki hauek garatu dira:

- Ingurumen-irizpideak **Nerbioi-Ibaizabal** eskualdeko etxeko zaborrak bildu eta garraiatzeko lizitazioan
- **Kirol Busean Elkarrekin AIE** proiektuak mugikortasun-premiak birplanteatu eta haien eskariaren arabera kudeaketa optimizatzen du.
- **Mutualia**, sarera konektatutako ur araztuko iturrien eta edukiontzi berrerabilgarrien hornikuntza ezartzea, erakundearen zentroetan plastikoa ezabatzeko programaren barnean.

Jardunbide egoki horiez aparte, joeren txostenetan egiten diren aipamenak ere gehitu behar dira. Txosten horietan, euskal administrazioaren eta beste eremu geografiko batzuetako lan ona aintzatesteko apartatu espezifiko bat dago.

| 17. jarduketa: Jardunbide egokien berri ematea | |
|--|---|
| | Argitaratutako jardunbide egokien kopurua (urtean eta guztira) |
| Jarraipen-adierazlea: | 2 jardunbide egoki argitaratu ziren 2018an (7 jardunbide egoki eta bikaintasun-kasu argitaratu dira, 2016-2018 aldian) |

18. JARDUKETA: *Programaren gauzatze-mailari eta helburu instituzionalen lorpen-mailari buruzko urteko emaitzak argitaratzea*

- **1. EKINTZA:** 2018ko emaitzen txostena egitea, argitaratzeko.

| 18. jarduketa: Programaren gauzatze-mailari eta helburu instituzionalen lorpen-mailari buruzko urteko emaitzak argitaratzea | |
|---|---|
| | Argitaratutako emaitza-txostenen kopurua |
| Jarraipen-adierazlea: | 3 txosten egin dira 2016., 2017. eta 2018. urteetarako (baina ez dira argitaratu) |

19. JARDUKETA: *Europako eta/edo nazioarteko sare, lantalde eta proiektuetan aktiboki parte hartzea*

- **1. EKINTZA:** Nazio Batuen Kontratazio Publiko Jasangarriaren Hamar Urterako Programari atxikitzea

Nazio Batuen Kontratazio Publiko Jasangarriaren Hamar Urterako Programari atxiki zaio Ingurumen Saila, hura nazioartean sustatzen laguntzeko. Jarduketan barruan, Euskadiko 2020rako EKPB Programari buruzko informazioa helarazi da (<http://www.oneplanetnetwork.org/initiative/promotion-and-implementation-green-public-procurement-basque-country>).

- **2. EKINTZA:** Procura+ kanpainan parte hartzea

Procura+ kanpainaren kide da Ihobe. Helburu orokorra da nazioarteko eta Europako lider nagusiek erosketara publiko berdearen alorrean zer egiten duten jakitea, bai eta haiekin euskal esperientzia partekatzea ere. 2018an, EcoProcura kongresuan parte hartu zen (2018/10/3-5).

▪ **3. EKINTZA:** Euskal EKPB programa hedatzea hirugarrenek antolatutako 6 ekitalditan

2018an, kasu gehienetan Euskaditik kanpoko erakundeek antolatutako ekitaldietan –6tan– hartu zuen parte lhobek, euskal ikuspegia eta esperientziak aurkezteko. Honako hauek izan dira:

- GREENS proiektuaren amaierako jardunaldia: «*La nueva ley de contratos públicos y la sostenibilidad ambiental: el futuro de la compra pública verde*». Andaluziako Udalerrien eta Probintzien Federazioa (2018/05/24).
- Ikastaroa: «*Economía circular: Hacia la eficiencia en el uso de recursos*». Kantabriako Unibertsitatea (2018/07/17).
- EHUren Udako Ikastaroa - «Egurrez eraikitzeke jardueraren oraina eta geroa, eta haren energia-efizientzia» (*Presente y futuro de la construcción en madera y su eficiencia energética*) (2018/09/14).
- Iraunkortasunaren aldeko Bikaintasunaren Klubeko Erosketa Batzordea (2018/10/30).
- «*Requisitos medioambientales en la contratación pública*» ikastaroa. Administrazio Publikoaren Asturiasko Institutua (2018/11/16).
- European NGO Network on Green Public Procurement «*Criterios ambientales y de Economía Circular en la contratación pública*». Natura Ondarea - Gaztela-eta Leongo Junta (2018/12/12).

20. jarduketa: Europako eta/edo nazioarteko sare, lantalde eta proiektuetan aktiboki parte hartzea

| | |
|-----------------------|---------------------------|
| Jarraipen-adierazlea: | Egindako jarduera kopurua |
| | 8 jarduera egin dira |

I. ERANSKINA: 2018KO AMAIERARA ARTE ATXIKITAKO ERAKUNDEEN ZERRENDA

1. Abanto-Zierbenako Industrialdeak SA
2. Arabako Industrialdea SA
3. Arratiako Industrialdea SA
4. Bilboko Udala
5. Donostiako Udala - Tokiko Agenda 21 eta Klima Aldaketa Zerbitzua
6. Eibarko Udala
7. Legazpiko Udala
8. Vitoria-Gasteizko Udala
9. Beterri Kostako Industrialdea SA
10. Bidasoa Oarsoko Industrialdea SA
11. Bizkaia Sortaldeko Industrialdea SA
12. Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla
13. Deba Bailarako Industrialdea SA
14. Gipuzkoako Foru Aldundia
15. Energiaren Euskal Erakundea (EVE)
16. EITB, Euskal Irrati Telebista
17. Goierri Beheko Industrialdea SA
18. Santa Marina ospitalea
19. Ihobe
20. Itelazpi SA
21. Mutualia-Donostia
22. Osakidetza-Euskal osasun-zerbitzua - Barrualde-Galdakaoko ESI
23. Osakidetza-Euskal osasun-zerbitzua - Goierri-Urola Garaiko ESI
24. Sprilur SA
25. Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra SA
26. Udalsarea 21
27. Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal SL
28. URA, Uraren Euskal Agentzia
29. Urdulizko Industrialdea
30. Urolako Industrialdea SA
31. Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA (VISESA)



II. ERANSKINA: JARDUKETEN LABURPENA

| | | |
|--|---|---|
| 1. IE: INPLEMENTAZIORAKO EDUKIA ETA TRESNAK | 1. JARDUKETA: Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua eguneratzea eta osatzea | 1. 7 lehenetsitako produktu/zerbitzuen kategoriatako irizpideak eguneratzea. |
| | 2. JARDUKETA: Ereduzko pleguen proposamenak egitea | 2. Ereduzko plegu izan daitezkeenak identifikatzea. |
| | 3. JARDUKETA: Esparru berritzaileetan jarduera pilotuak egitea | 3. Ekonomia Zirkularerako Erosketa Publikoari buruzko argitalpena. 4. Erosketa publikoaren ekarpena bistaratzea (aribidean). 5. «Bizi-zikloaren kostuak kontratazio publikoan txertatzeko kontuan izan beharreko alderdiak» jardunaldia. 6. Erosketa publikoan bizi-zikloak dituen kostuei buruzko lantalde pilotua. |
| | 4. JARDUKETA: Bakoitzaren beharren araberako laguntza teknikoa ematea | 7. Ingurumen-irizpideak txertatzeko 152 kontsulta egin dira. |
| 2. IE: KONTRATAZIO-PROZEDURETAN INTEGRATZEA | 6. JARDUKETA: Dauden kontratazio-ereduak eta -tresnak berrikustea | 8. 2/2018 Gomendioa, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearena. 9. Kontratazio-tresnak egokitzea, erosketa berdeari jarraipen hobea egiteko 10. Eraikuntzaren sektorean, erosketa eta kontratazio publiko berdearen irizpideei jarraipena egiteko eta haiek kontrolatzeko tresna |
| | 8. JARDUKETA: Zentralizatutako erosketa publiko berdea sustatzea | 11. Erosketa-zentralen lizitazioetan ingurumen-irizpideak txertatzea. |
| | 9. JARDUKETA: Erosketa eta kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan integratzea | 12. 15 jardunaldi tekniko egitea. |



| | | |
|--|--|--|
| 3. IE: PRESTAKUNTZA, GAIKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA | 10. JARDUKETA: Autoikaskuntzarako prestakuntza-moduluak egitea | 13. Erosketa eta kontratazio berdeko autoprestakuntzarako material espezifikoa egitea |
| | 11. JARDUKETA: Aldizkako sentsibilizazio-ekintzak egitea | 14. 7 laburpen-fitxa eguneratzea. 15. Erosketa berdea balioesteko eta administrazio konprometituenak aintzatesteko jardunaldiak antolatzea. 16. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen aurrean lehiakor izateko ingurumen-eskaintza sustatzeko elkarrizketa. |
| | 15. JARDUKETA: Hornitzaileentzako prestakuntza-ikastaroak egitea | 17. Enpresa-sektorearentzako prestakuntza jardunaldi bat (1) egitea. |
| 5. IE: KOMUNIKAZIOA, DIBULGAZIOA ETA SAREKO LANA | 16. JARDUKETA: Hedapen-ekintzak maiz egitea | 18. Ihoberen webgunea berritzea. 19. 6 albiste argitaratzea. 20. Erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko bideoa argitaratzea. |
| | 17. JARDUKETA: Jardunbide egokien berri ematea | 21. 3 jardunbide egoki/bikaintasun-kasu egin eta argitaratzea. |
| | 18. JARDUKETA: Programaren gauzatze-mailari eta helburu instituzionalen lorpen-mailari buruzko urteko emaitzak argitaratzea | 22. 2018ko emaitzen txostena egitea. |
| | 19. JARDUKETA: Europako eta nazioarteko sare, lantalde eta proiektuetan aktiboki parte hartzea | 23. Nazio Batuen Kontratazio Publiko Jasangarriaren Hamar Urterako Programari atxikitzea. 24. Procura+ kanpainan parte hartzea. 25. Euskal EKPB programa hedatzea hirugarrenek antolatutako 6 ekitalditan. |



III. ERANSKINA: 2016KO, 2017KO ETA 2018KO JARDUKETEN LABURPENA

| | | |
|--|---|---|
| 1. IE: INPLEMENTAZIORAKO EDUKIA ETA TRESNAK | 1. JARDUKETA: Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua eguneratzea eta osatzea | <ol style="list-style-type: none"> 4 produktu talderentzako kapitulua eta irizpideak garatzea: Hondakinen kudeaketa eta Bide-garbiketa, Garraio publikoa autobusez, Energia-hornikuntza eta Instalazioak. Modu horretan, ingurumen-irizpideak dituzte Programan lehenetsitako produktuen kategorია guztiek. Ingurumen-irizpide sinplifikatuak egitea 14 produktu kategoriarentzat; horrenbestez, horrek garrantzia duen produktu guztiek badituzte irizpide sinplifikatuak. Eskuliburuko 10 produktu taldeen erosketa berdeko irizpideak berrikustea eta eguneratzea: Argitalpenak, Ibilgailuak, Eraikuntza, Ordenagailuak, Inprimatzeko ekipamenduak, Eraikinen garbiketa, Saltzeko makinak zerbitzua, Tartekako cateringeko zerbitzua, Jangela-zerbitzua eta Lorezaintza (batzuk ez dira oraindik argitaratu webgunean). ERAS tresnaren aplikazio informatikoa garatzea, Eraikuntza eta Birgaitze Jasangarriaren Gidak ezartzeko. www.ihobe.eus webguneko Erosketa Publiko Berdearen web atala berritzea. |
| | 2. JARDUKETA: Ereduzko pleguen proposamenak egitea | <ol style="list-style-type: none"> Ingurumen-irizpideak modu eredugarrian txertatuta dituzten lehenetsitako produktu/zerbitzuen kontratazio-pleguen 5 adibide erreal argitaratzea. |
| | 3. JARDUKETA: Esparru berritzaileetan jarduera pilotuak egitea | <ol style="list-style-type: none"> Jarduketa pilotu bat egitea Berrikuntzaren Erosketa Publikoan. Berrikuntzaren Erosketa Publikoko ideien koadernoak egitea. Erosketa Publiko Berdearen eta Bizi-zikloaren Kostuaren Azterketaren Gidaliburua egitea. Bizi-zikloaren kostuak kontratazio publikoan txertatzeko kontuan izan beharreko alderdiak lantzeko jardunaldia antolatzea. Euskal administrazio publikoan ordenagailuak eta monitoreak erostean bizi-zikloaren kostuak erabiltzeari buruzko lantalde pilotua abiaraztea. Ekonomia Zirkularerako Erosketa Publikoari buruzko Jardunaldia antolatzea. «Kontratazio zirkularra. Ekonomia zirkularren sustapena erosketa eta kontratazio publiko berdearen bitartez» ideien koadernoak egitea. |



| | | |
|---|--|--|
| | <p>4. JARDUKETA: Bakoitzaren beharren araberrako laguntza teknikoa ematea</p> | <ol style="list-style-type: none"> 1. Ingurumen-irizpideak txertatzeko 256 eskaerari erantzutea. 2. Kontratazioko 6 jarraibide/prozeduratan ingurumen-klausulak txertatzea. 3. Erosketa berderako 3 jarraibide/prozedura egiteko laguntza ematea. 4. Eraikuntzako Erakunde arteko Mahaia kudeatzea. 5. Prestakuntza-jardunaldiak egitea Vitoria-Gasteizko Udalarentzat eta Bizkaiko Foru Aldundiarentzat. 6. Sektore publikoko kontratuen Lege berriari buruzko txosten juridiko bat egitea. |
| | <p>5. JARDUKETA: Garatutako produktu eta zerbitzuetarako irizpideak zuzeneko erosketaren ikuspegira egokitzea</p> | <ol style="list-style-type: none"> 1. Zuzeneko erosketako 13 fitxa egitea (Programako gainerako 7 lehenetsitako produktuen taldeentzat, ez da egoki kontsideratzen fitzak egitea; izan ere, hori garrantzitsua den produktuek jada badute zuzeneko erosketako fitxa, zeinak 1. jarduketaren barnean eguneratzen baitira). |
| <p>2. IE: KONTRATAZIO-PROZEDURETAN INTEGRATZEA</p> | <p>6. JARDUKETA: Dauden kontratazio-ereduak eta -tresnak berrikustea</p> | <ol style="list-style-type: none"> 1. Euskadiko Kontratazio Plataforma aldatzeko proposamena (amaitu gabea). 2. Eraikuntzaren sektorean, erosketa eta kontratazio publiko berdearen irizpideei jarraipena egiteko eta haiek kontrolatzeko tresna bat egitea. 3. Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen 2/2018 Gomendioa argitaratzea. 4. Eraikuntza-lizitazioetan ingurumen-irizpideei jarraipena egiteko eta haiek kontrolatzeko aplikazio bat garatzea. |
| | <p>8. JARDUKETA: Zentralizatutako erosketa publiko berdea sustatzea</p> | <ol style="list-style-type: none"> 1. Topaketa bat egitea erosketa zentralizatzen diharduten euskal administrazio nagusiekin. 2. Arabako Foru Aldundiaren kontratazio-zentrala sortzea. 3. Erosketa-zentralen zenbait lizitaziotan ingurumen-irizpideak txertatzea. |
| <p>3. IE: PRESTAKUNTZA, GAIKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA</p> | <p>9. JARDUKETA: Kontratazio publiko berdea prestakuntza-eskaintzan integratzea</p> | <ol style="list-style-type: none"> 1. Gaiari buruzko 29 jardunaldi tekniko egitea. |
| | <p>10. JARDUKETA: Autoikaskuntzarako prestakuntza-moduluak egitea</p> | <ol style="list-style-type: none"> 1. Erosketa eta kontratazio berdeko autoprestakuntzarako 7 modulu (diapositiba) egitea eta argitaratzea. 2. Haiek zabaltzea, 2019an Programari atxikitako erakundeei entregatuko zaizkien 8 moduluren bidez. |
| | <p>11. JARDUKETA: Aldizkako sentsibilizazio-ekintzak egitea</p> | <ol style="list-style-type: none"> 1. Balioesteko eta sentsibilizatzeke 4 jardunaldietan parte hartzea (Udalsarea 21ekin eta beste batzuekin). |



| | | |
|---|--|---|
| | | <ol style="list-style-type: none"> 2. Produktu taldeen 9 laburpen-fitxak eguneratzea. 3. Administrazioen (Eusko Jaurlaritza eta Bilboko Udala) kontratazio-webguneetatik erosketa berdeko materialetara iristeko esteka. 4. Ingurumen-irizpideak txertatzeko eskaintza sustatzeko elkarrizketa bat argitaratzea. |
| 4. IE: MERKATUAREKIN KOORDINATZEA | 12. JARDUKETA: Irizpide teknikoak zehazteko prozesuan ekoizleak eta hornitzaileak inplikatzeko | <ol style="list-style-type: none"> 1. Enpresa-sektorearekin ingurumen-irizpideak kontrastatzea 5 produktu kategoriarentzat. |
| | 14. JARDUKETA: Erosketa berritzaileko prozesuetan parte-hartzea erraztea | <ol style="list-style-type: none"> 1. Merkatuarekin elkarrizketa izateko jardunaldi bat (1) egitea, berrikuntzaren erosketa-proiektu pilotuaren barnean. 2. Europako PACE proiektu-proposamenean parte hartzea. |
| | 15. JARDUKETA: Hornitzaileentzako prestakuntza-ikastaroak egitea | <ol style="list-style-type: none"> 1. Enpresa-sektorearentzako 2 prestakuntza-jardunaldi egitea. |
| 5. IE: KOMUNIKAZIOA, DIBULGAZIOA ETA SAREKO LANA | 16. JARDUKETA: Hedapen-ekintzak maiz egitea | <ol style="list-style-type: none"> 1. Ihoberen webgunea berritzea, EKPBren material guztia eskuratzea errazteko. 2. 7 joera-txosten argitaratzea. 3. 23 albiste argitaratzea. 4. Erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko bideo bat (1) argitaratzea. |
| | 17. JARDUKETA: Jardunbide egokien berri ematea | <ol style="list-style-type: none"> 1. Guztira, 9 jardunbide egoki eta bikaintasun-kasu egin eta argitaratu dira 2016tik. |
| | 18. JARDUKETA: Programaren gauzatze-mailari eta helburu instituzionalen lorpen-mailari buruzko urteko emaitzak argitaratzea | <ol style="list-style-type: none"> 1. 3 emaitza-txosten egin dira 2016., 2017. eta 2018. urteetarako (baina ez dira argitaratu). |
| | 19. JARDUKETA: Europako eta nazioarteko sare, lantalde eta proiektuetan aktiboki parte hartzea | <ol style="list-style-type: none"> 1. Procura + kanpaina parte hartzea, erakundea haren kidea denez (hizlari gisa jardutea webinar batean, EcoProcura kongresuan parte hartzea, albiste bat bidaltzea). 2. Nazio Batuen Kontratazio Publiko Jasangarriaren Hamar Urterako Programari atxikitzea. 3. Euskal jardunbide egokiak sustatzea honako hauen bidez: Europako Batzordea (1), NBE (1), Europako proiektuak (1), Espainiako eta/edo nazioarteko beste erakunde batzuk (1). 4. Euskal EKPB programa hedatzea beste erakunde batzuek antolatutako 9 ekitalditan. |



| | | |
|--|--|---|
| | | <ol style="list-style-type: none">5. 2017an, ORU-FOGAR Eskualde Batuen Erakundeak erosketa eta kontratazio publiko berdearen hedapena aintzatestea.6. 2017an, topaketa Hego Koreako ordezkarezekin.7. 2016an, Europako Batzordeari helaraztea autobusentzako irizpideak garatzeko lanaren emaitzak. |
|--|--|---|